

Ura eta Lerrutz

LERRUTZ

- Iturriak, latsagiak
- Ibaiak, errekek
- Uharkak, putzuak
- Askak
- Erlazionatutako toponimia
- Ur-horniketa



Julian Lizarragak eginiko iturria. 2024

ITURRIAK

eta

LATSAGIAK

Herriko iturria Menditxulo da. Antzina, ura andeletik hartzen zen.

Fuente del Carpintero, lehen Iturzarra esaten ziotena, jada ez dabil. Ihelzko bidetik herrira sartu berritan dago, Jauregipean. Harrizkoa da, eskaileraduna.

Urozko bidean dauden askek Baratxeko iturria dute izena.

Latsagian ere bada iturria.

Makain iturria latsagitik aurreraxeago dago, Idoateko bide zaharrean.

Beheko baratzeak ureztatzeke erabiltzen zen urezta-iturria. Baina badira 20 urte inork ez dituela baratzeak lantzen eta ez dago jakiterik urik ba ote duen oraindik ere.

Zaldu inguruan bazen beste iturri bat, baina gaur egun desagertuta dago.

IBAIK eta ERREKAK

Mendian barna badira istilak, animaliek bustitzeko erabiltzen dituztenak. Bata lhelzko bidetik gertu dago, bestea Atxalan mendirako bidean, eta hirugarrena, hilerria baino goraxeago.

UHARKAK eta PUTZUAK

San Migel baselizako putzua.

ASKAK

Eliza ondoan, badago herriko iturritik ura hartzen duen aska bat.

HORNIKETA

Edateko ura Lerruzko andel zaharrera iristen da, Urrozko edateko uren araztegitik. Andelean ez da ura biltegitratzen; aitzitik, presioa kontrolatzen da, balbula batzuen bidez, eta ura etengabe kloratzen da, andelak ezin baitu ura biltegitratu.



Aska